

Medikuntza Euskal Herrian (III)

Hamaseigarren mendearen lehen partetik, Pitkünde garaiaren eragina ezagutu zuen gure herriak. Eraroan erregetza galdu bazuen ere, lehenagotik goraka zetorren itsasbidezko merkatalgoa, Amerika aurkitzeaz bizkorragotu zen eta mende oso batean, Bizkai-Gipuzkoak bereziki, inoiz ezagutu ez zuten ekonomi aberatsa ezagutera heldu ziren. Ondasun horren ondorenez, Euskal Herriko semez ugarituko ziren Espainiako Unibertsitateak.

V. Beltrán de Heredia arabarrak argitaratu zuen *Bulario de la Universidad de Salamanca* (1966) deritzan obra aztertzeaz J. Ig. Telletxea Idilgoras-ek ateratu zituen konklusioak hor daude. Hamarugarren mendetik hamaseigarrenaren lehen partetera, Euskal Herriko semezik urri omen zen, estudiantean arituan, baina hortik aurrera ugarituko ziren Egile honen *Papeles viejos* (1968) deritzan liburua 175-188 orrialdeak irakurgarriak dira garai haie-tako egoeraz jakiteko. Uste dugu, Salamanca-n gertatzen zen gauza bera gertatuko zela gainerako Unibertsitateetan ere. Hala ta gutiz ere, ba dirudi, XVI. mende osoan, euskaldunak, Medikuntza ikasteko, Alá-ra joera gehiago izan zutela. Aurreko bi arikuluetatik argi ikus daiteken gauza da.

Dena dela, gure historian azaltzen zaigun ekonomi gorabeherekin bate-

ratsu doa goi mailako ikasketa, eta hamaseigarren mende oso aberatsa izan genuen, ola-zaharren gorakadaz, merkatalgo eta gizon jakituz.

Hamazazpigarren mendean aldatu ziren gauzak. Europako Ifarraldeekin eta Amerikakkin izan genuen merkataritzako hurreman estu eta aberats hura gainbeheraka etorri zen. Hemen bertako gizonak itsasontziak hobetzeko ahaleginetan arduratu ziren, baina errege eta inguruko aldetik ez zuten izan laguntzarik. Lehen lehenik axolarik ezak atzeratu zuen hemengo ekintza eta azkenik "Gran Armada Invenetible" hura izan zen hondamendia. Hemengo itsasontzirik onenak, kaitoiak jarrita, Armada hartan joan bai ziren.

Puntu hau ezlago ondoegi estudiantua. Hala ere, argibide batzuk ematen dizkigu J. Caro Barojak *Ixcaskaria* (1978) liburua 250-257 orrialdeetan.

Gure herriak krisi aldi gogorak ezagutu zituen mende hartan. Gure eliza eta etxean arte aldetik ere hala ogeri da. Ez dugu, beraz, gauza batagorri askorik aurkituko. Euskal Herriko semeak Ameriketara iritengo dira, baina ez hainbeste Unibertsitateetan estudiantera.

Geroago, hamazazpigarrenaren azken partetik, Real Compañía Guipuzcoana de Caracas sortzeaz, eta hamazortzigarrena zehar hemengo

merkatalgoa berpiztuko zen aurregi berri bat erakustiko digu gure ekonomiak.

Historia ikerketak bestelako argitasunik ematen ez digun arituan ospekin medikuen lutsune handia aurkituko dugu Elizalde ta Galbete (biak Franzisko izenekoak) geroztik Etxeberri, Moguel, Oñarte, Lardizabal, Lucuriaga eta beste zenbait agertu arte.

Oñati, Iratxe, Montpellier eta beste toki batzuetako arxiboak aztertu beharra dago garai hoietan gai hontaz zerbaiz gehiago jakin nahi badugu.

Huete-Etxenik 1918an, Oñatiko Batzar haletan euskal estudiantek Salamanca-n 1643an izan zuten auzi baten berri eman zuten, J.M. Barrioalok ere *Los Amigos del País y la Medicina* (1963) deritzan liburua 21. orrialdean ematen du horren berri, ikergaitza eskainiz.

Barriolaren lan hau oinarritzkoa Baina euskaltzale munduarekin zer ikusirik zutenek Mogelidarrak J. Garatek lehenago ikertu zituen eta J. Etxeberri Sarakoa J. Urkixok.

Mogelidarrak, lehen lehenik Nafarroatik Errioxara jo zuten eta hemendik Aragoira, medikuntzarekin zer ikusia izan zuen lehena. Andres Mogel, Alfaron sortua eta Ruesca-n "cirujano" ageritzen zaigu eta bere seme Domingo, 1685-ean Ruesca-n mundura etorri zena Arabako Ayu-

raien mediku izan eta bertan ez-kondu ondoren Markinara etorri zen. Honen semea, Markinan jaitoa, Iratxen medikuntza estudiantua zen. Honek bere izen berdineko seme bat izan zuen, mediku egingo zena, eta Juan Antonio apeza *Peru Abarkaren* egilea. Xehetasunak J. Garatek ematen ditu *La época de P. Astarloa y J.A. Moguel* (1936) deritzan liburua 36-40 orrialdeetan.

Joanes Etxeberri Sarakoa ez dakigu noiz sortua zen, baina bat 1749an hil zela, Bera, Hondarribia eta Azkoitia mediku izan ondorean. Gainera, Agustin izeneko seme bat izan zuen, Mutrikan mediku izango zena. Joanes euskaltzale zen, euskararen alde eta honen ikerketaz lan asko egin zuen; biziki maite zuen Axularren lana eta honen zabalduz ere ahalegindu zen. Bere esku-izkriburik gehienak Zarauzko frantziskotarretan zeuden argitaratze eta Julio Urkixok bildu eta argitaratu zituen *Obras Vascongadas del Doctor laborioso Joannes d'Etcheberri* (1907) izanburuz. Hitzaurre luze batean ematen du egilearen berri bere mediku ofizial nondik nora bete zuen adieraziaz.


Juan SAN MARTIN
Como consecuencia de una fuerte crisis comercial e industrial, en el siglo XVII, nuestras provincias no gozaron del esplendor conocido a lo largo del XVI.

Las razones de esta crisis son varias. Desde el punto de vista tecnológico, sobre todo en el campo naval, que representaba un elemento en la marina hasta la propia participación de la Armada "Invenetible" en los mejores navios de los puertos, a los que se les dejó hipotecados por malos constructores.

A pesar del importante número de médicos de esta época, como Elizalde y Galbete, la producción de las ilustraciones aún queda mucho por hacer. Aquel comunicado de Echenique al Congreso en 1918, que ya recordamos en su obra *Los Viejos y la Medicina*, tratado de las investigaciones del alvaro Bulario del alvaro Heredia, comienza diciendo: "Viejos por Telletxea, elocuente silencio que en esta última obra, en el llamamiento a la atención de nuestros hombres de la Universidad de Salamanca, sobre los Mogelidarrak, sabemos algo por Julio Urquijo, desde de los mismos con los que y los médicos de la época están muy bien mencionada obra de..."

¿Qué le pediría Ud. a una cuenta corriente?

Que me ayude en la administración de mi comercio



Una Cuenta Corriente CAP ofrece al que dirige un establecimiento, la mejor ayuda para su administración: extracto diario de las operaciones; un buen sistema de domiciliaciones; soluciones eficaces para cualquier problema de cheques, transferencias y órdenes de pago; cajas

permanentes para recoger la recaudación diaria, la posibilidad de obtener un crédito, ... y 109 oficinas en Guipúzcoa que le ofrecen estos servicios con el mismo nivel de eficacia.

Infórmese. Una mejor administración de su establecimiento le dará mayores beneficios.

ordaintzeko agindu arazoetan; egun oro bildu dirua gordetzeko kutxa iraunkorrak, kreditua lortzeko posibilitatea,.... eta Gipuzkoan zehar 109 bulegotan efikazia maila berdinez eskaintzen zaizkizu zerbitzuok.



El Servicio más completo en Guipúzcoa.



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPÚZCOA
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIAR